## Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as… Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como esta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

# ¿Y ahora adónde vamos?

## Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Et maintenant on va où?

AÑO: 2011.

DURACIÓN: 110 min.

PAÍS: Líbano.

DIRECCIÓN: Nadine Labaki.

REPARTO: Nadine Labaki, Kevin Abboud, Claude Baz Moussawbaa, Julian Farhat, Ali Haidar, Leyla Hakim.

PRODUCCIÓN: Coproducción Líbano-Francia, Les Films des Tournelles.

## Sinopsis

Un cortejo de mujeres vestidas de negro se dirigen al cementerio, bajo un sol abrasador, apretando contra su cuerpo fotos de sus esposos, padres o hijos. Todas comparten el mismo dolor, consecuencia de una guerra funesta e inútil. Al llegar a la entrada del cementerio, el cortejo se divide en dos grupos: uno musulmán y otro cristiano. En un país destrozado por la guerra, estas mujeres muestran la inquebrantable determinación de proteger a sus familias de toda clase de amenaza exterior. Con ingenio, inventando estratagemas esperpénticas, intentarán distraer la atención de los hombres para que olviden el rencor.

## Temática

### Duelo, Guerra, Creatividad

**Duelo**. Es una comunidad devastada por la violencia y la segregación, con muertes en todas las familias. Viven el día a día con normalidad, aunque el dolor de la pérdida y el sufrimiento de la violencia del pasado están presentes en sus vidas.

**Guerra**. Cristianos y musulmanes conviven pacíficamente en un pequeño pueblo, hasta que la violencia externa les hace conectar con el rencor y la polarización propia de las guerras a los hombres. Las mujeres, más conectadas con la pérdida que con el rencor, no aceptan actúar bajo esa lógica de enemigos.

**Creatividad**. Las mujeres utilizan su infinita creatividad para que los hombres no vuelvan a la violencia. Se unen por ese objetivo común y llevan a cabo acciones sorprendentes para que los hombres recuerden lo que les une.

## Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película…

**…hacia adentro.** Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**…hacia fuera.** Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**…no solo con la cabeza, también con el corazón.** Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

**…y después de algún tiempo repensar.** Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

## Algunas preguntas…

**…antes de la película**

·Sobre el duelo. Cuando la pérdida es causada por una injusticia, ¿la venganza puede calmar el dolor? ¿Cómo se vive un duelo saludable?¿Es bueno recordar a los muertos colectivamente?

·Sobre la guerra. ¿Por qué hay diferencias que causan verse como enemigos?¿Por qué no ocurre lo mismo con otras diferencias? ¿Qué relación tiene el rencor con la violencia?

·Sobre la creatividad. Teniendo el ser humano una creatividad sin límites, ¿se suele aprovechar a la hora de transformar conflictos? ¿Qué lo bloquea? ¿Qué lo facilita? ¿Ética y creatividad se interrelacionan?

**…después de la película**

·¿Se perciben las consecuencias de la pérdida en el día a día de la gente del pueblo? ¿Cómo te imaginas que se están sintiendo por dentro? ¿Cómo explicas que la madre de Nassim decida y pueda ocultar la muerte de su hijo? ¿Harías lo mismo en una situación parecida?

·¿Cristianos y musulmanes, tienen más diferencias que cosas en común? ¿Por qué los hombres se sienten amenazados por los otros? ¿Qué opinas del rol de los líderes religiosos durante la película?

·¿Por qué las mujeres son capaces de idear esas soluciones noviolentas y los hombres no? ¿Sus acciones son éticas? ¿Es legítimo usar el engaño y la mentira por un bien mayor?

Con la colaboración de Maialen Lizarralde.

baketik

***zeurekin eta besteekin bizitzeko*** zinema

# ¿Y ahora adónde vamos?




baketik

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA — PRESIDENCIA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Secretaría General para la Paz y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

943-251005 www.baketik.org

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak… Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

# ¿Y ahora adónde vamos?

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Et maintenant on va où?

URTEA: 2011.

IRAUPENA: 110 min.

HERRIALDEA: Libano.

ZUZENDARIA: Nadine Labaki.

AKTORE-ZERRENDA: Nadine Labaki, Kevin Abboud, Claude Baz Moussawbaa, Julian Farhat, Ali Haidar, Leyla Hakim.

EKOIZPEN-ETXEA: Libano-Frantzia arteko produkzioa, Les Films des Tournelles.

## Sinopsia

Beltzez jantzitako emakumeen segizio bat hilerrira doa, eguzki kiskalgarripean, beren senar, aita edo semeen argazkiak gorputzaren kontra gogor eutsiz. Denek konpartitzen dute min berbera, zorigaiztoko eta alferrikako gerra baten ondorioz. Hilerriaren sarrerara iristean, segizioa bi taldetan banatzen da: bata musulmana eta bestea kristaua. Gerrak txikitutako herrialde batean, emakume hauek beren familiak kanpoko edozein motatako mehatxuetatik babesteko ausardia apurtezina erakusten dute. Sormenez, amarru xelebreenak erabiliz, gizonen arreta desbideratzen saiatuko dira gorrotoa atzean utz dezaten.

## Gaiak

Dolua, Gerra, Sormena

**Dolua**. Indarkeriak eta segregazioak suntsitutako komunitatea da; familia guztietan dituzte hildakoak. Egunerokotasuna normalitatez bizi dute, galeraren mina eta iraganeko indarkeriaren sufrimendua hor egon arren oraindik.

**Gerra**. Kristauak eta musulmanak era baketsuan bizi dira elkarrekin herri txiki batean, kanpoko indarkeriak gerretan ohikoa diren gorrotoa eta polarizazioaren logika txertatzen dien arte gizonei. Emakumeak, galeraren sentimendua azalean, ez dute onartzen etsaien logika horrekin jokatzea.

**Sormena**. Emakumeek beren sormen mugagabea erabiltzen dute gizonak indarkeriara itzul ez daitezen. Helburu partekatu horrekin bat egiten dute eta ekintza harrigarriak abiarazten dituzte gizonei lotzen dituzten hori guztia gogorarazteko.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**…barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.
**…kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.
**…ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.
**…eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu.** Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

## Zenbait galdera…

**…pelikula ikusi aurretik**

·Doluari buruz. Galera injustizia batek sortu duenean, mendekuak mina apal dezake? Nola bizi daiteke dolu osasuntsu bat? Ona da hildakoak kolektiboki gogora ekartzea?
·Gerrari buruz. Zergatik ezberdintasun batzuk elkarren etsai bezala ikustera garamatzate? Zergatik ez da gauza bera gertatzen beste ezberdintasun batzuekin? Ze lotura dago gorrotoa edo herra eta indarkeriaren artean?
·Sormenari buruz. Gizakiak sormen mugagabea duela kontuan izanik, aprobetxatu ohi da gatazken eraldaketan? Zerk oztopatzen du? Zerk erraztu? Etikak eta sormenak badute harremanik?

**…pelikula ikusi ondoren**

·Antzematen al dira galeraren ondorioak herriko jendearen egunerokotasunean? Nola sentitzen dira barrutik zure ustez? Nola azaltzen duzu Nassim-en amak bere semearen heriotza ezkutatzeko gai izatea eta erabaki hori hartzea? Gauza bera egingo zenuke halako egoera batean?
·Kristauek eta musulmanek ezberdintasun gehiago al dituzte partekatutako gauzak baino? Zergatik sentitzen dute gizonek besteak mehatxua direla? Zer iritzi duzu lider erlijiosoek pelikulan zehar duten paperaz?
·Zergatik dira gai emakumeak indarkeriarik gabeko konponbide horiek asmatzeko eta gizonak ez? Ekintza horiek etikoak al dira? Zilegi al da iruzurra eta gezurra erabiltzea ongi nagusiago baten alde?

baketik

Maialen Lizarralderen laguntzarekin.

Cine para ***vivir y convivir***

# ¿Y ahora adónde vamos?




baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

943-251005 www.baketik.org